

Arabako sagardo berria, Kuartangon

Kuartango sagardotegian ireki zuten atzo Arabako txotx denboraldia, Mikel Landarekin. Orografiak «izaera berezia» ematen dio.

Alaia SIERRA




Mikel Landak ireki zuen, atzo, Arabako txotx denboraldia. (Jaizki FONTANEDA | FOKU)

Kuartango sagardotegian, behinola Zuhatsu-Kuartangoko bainuetxea izandakoan, ireki zuten atzo aurtengo txotx sasoia Araban. Trebiñukoarekin eta Aramaiokoarekin batera, 180.000 sagar-kiloko uztatik sortutako 120.000 litroko ekoizpena «nahiko ona» izan dela nabarmendu zuten. Baia ibaiak bustitzen duen Kuartango herriko sagardotegiaren jabeak, Benito Peciñak, azpimarratu zuenez, Araban sagardoa egiten duten upategiak «gutxi gara, baina onak». GARArri azaldu zionez, klimaren soiltasunak, orografiak eta lurraren mineralizazioak «izaera berezia» ematen dio Araban ekoizten den produktuari.

Mikel Landa txirrindulari arabarra izan zen urteko lehen zurrutada hartu zuena, sagarrondo bat landatu ondoren. Gonbidapenagatik eskerrak emateaz gain, Kuartangon izateak «ilusio berezia» egiten ziola aitortu zuen, Badaia, Arkamu eta Gibillo-Urkabustaiz mendilerroek biltzen duten bailaran «pasa ditudan momentu onengatik» eta familiaren loturagatik.

PUBLICIDAD



«Ea garaipenen bat edo podiumen bat Arabako sagardoarekin lagun dezakegun», esan zuen itxaropentsu kirolariak.



PUBLIZITATEA



PUBLIZITATEA

40' ROCK

2024/02/24
DURANGO
LANDAKO
GUNEA

naiz:

GINUKA ASTIDUEZ ORATZAK

HOFEX4:40*IBIL BEDI*NØGEN
ESNE BELTZA*DES-KONTROL
BELAKO*DAM*STREETWISE
RAIMUNDO EL CANASTERO
NEVADAH*ARENEG*BURUTIK
SU TA GAR

LAMIA MARI • KILIKI FREXKO DJ SET • XAUKENA XAUK
PINEAPPLE SWEETS • DJ KUKU & KENE

SARRERAK
AURREZ: 20€
BERTAN: 25€

EZ DA INOLAKO
ERASORIK
ONARTZEN!



ZUNTZA MUGIKORRA TB

Klikatuenak



La expectativa sobre EH Bildu crece 20 puntos en ocho meses 🔑



Contundente varapalo a la gestión de PNV y PSE durante la última década 🔑



Pello Otxandiano aboga por un «giro copernicano» en política económica 🔑



Israel amenaza con arrasar hasta Rafah y avisa con bombas a la UE 🇺🇪



Estallan el Challenger y la relación de Urkullu e Ibarretxe 🇪🇸
